Mediante Decreto, el Consejo de Gobierno podrá actualizar previo Informe del Consejo Asesor de Patrimonio Documental y Archivos de Euskadi la cuantía de las sanciones previstas en la presente ley.

**DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA.**

Se autoriza al Gobierno del País Vasco para dictar las disposiciones reglamentarias que sean necesarias para el desarrollo de esta Ley.

**DISPOSICIÓN FINAL TERCERA.**

La presente Ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**EUSKADIKO DOKUMENTU-ONDAREAREN ETA ARTXIBOEN LEGEAREN  
AURREPROIEKTUA****ZIOEN ADIERAZPENA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusibotzat jo zituen dokumentu-ondarearen eta estatu-titulartasunekoak ez diren artxiboen gaineko eskumena, hain zuzen ere, 10. artikulua 19. eta 20. paragrafoetan.

Horretaz gain, Lurralde Historikoen Legearen arabera gure lurraldeak duen eskumen-banaketari jarraiki, foru-aldundiek dute beren titulartasuneko artxiboen gaineko eskumen eskusiboa.

Esparru horren baitan eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere egindako eskumenez baliatuz, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea onartu zen. Bertan bi kapitulu bereizitan arautu ziren, alde batetik, dokumentu-ondarea eta, bestetik, artxibo-zerbitzuak eta Artxiboen Sistema Nazionala.

Artxibo-dokumentua giza jardunaren testigantzarik garbientako bat da. Dokumentuak serie gisa kontserbatzeak egoki islatzen du horiek sortu dituen komunitatearen bilakaera sozial, kultural eta ekonomikoa.

Batera edo bestera, une historiko bakoitzean izan dira dokumentazio horren kontserbazioa bermatzeko bitartekoak, multzokatuta, sedimentazio naturalari jarraiki, artxibo-funtsetan. Hori dela eta, baliagarri izan dira, nola eskubideak eta betebeharrak jakin batzuk defendatzeko, hala jakintzaren gordailu bihurtzeko, hurrengo fasean. Jakintzaren gordailu horiek dira gizarteak etorkizuneko belaunaldiari helarazi nahi diren memoriaren euskarri. Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Legeak tradizio zahar hori du oinarri.

Alabaina, bide batez esateko, tradizio horrek bilakaera azkarra izan du azkeneko hogeitau urteetan, aldaketa sozial eta teknologikoen eraginez. Horrek ezinbestean egokitu eta eguneratu beharra dakar berekin.

Artxiboak sorreran eskubideen gordailu eta administrazio-jardunen multzo gisako izan zirenez, horien tratamendu harmoniatu, moderno eta eraginkorra ezin du saihestu ezein gizartek. Zeregin horri ikuspegi publikotik edo gizarte-esparru anitz eta pribatuetatik hel dakiok. Hori dela eta, lege honen lehen helburua izango da gaur egun sortzen den dokumentazio benetan handia tratatzea, ondoren dokumentazio hori dokumentu-ondarearen kategoriarantz irits dadin, dagokion balioesteko eta garbitzeko prozesuaren ondoren eta berme tekniko onenekin eta handienekin. Dokumentu-ondare hori, kultur ondarearen esparru zabalagoan txertatzen dena, baliagarri izango zaigu eguneroko bizitzaren eta herritarren bizipenen lekuko mutu horiek sortu dituen ingurunea eta gizartea berreraikitzeko.

Bestalde, artxibo-dokumentazioa erabiltzea da azkenean dokumentazio horren kontserbazio mugagabeari zentzua ematen dion elementu nagusia. Alde batetik, erakunde publiko, erakunde pribatu, elkarte, talde edo familientzat, alegia, artxibo-funtsaren sorburuan direnentzat, eguneroko kudeaketarako eta beren eskubideak defendatzeko horietara jotzen dutenentzat; eta bestetik, bigarrenik, herritarrentzat, gaur inoiz baino kezka handiagoa baitute memoria historikoa berreskuratzeko, ulertzeko eta beretzeko. Hori kontuan hartuta, honakoa bezalako lege batek dokumentazio horretarako sarbidea erraztea du xede, hori izango baita gizarteak aurrera egiteko eta bat egiteko bitarteko eraginkorrenetako bat.



Xede horixe gogoan, legeak administrazio-egiturak arautzen ditu, eta lankidetzaz eta betebeharrak eta eginbeharren gaineko ardura elkarrekin hartzea defendatzen, urte gutxi barru herritarren kultura- eta aisia-ohituren artean barne hartu ahal izateko artxibo eta dokumentu-ondarera jotzea.

Lege honek aipatutako kapituluak indargabetuko ditu eta estatus bereiziaz emango dio Euskadiko dokumentu-ondarearen eta artxiboen arautzeari.

Helburu hori duen tresna izaki, legeak zazpi titulu eta hogeita hamabi artikulua ditu, baita lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ere.

## LEHEN TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua- Xedea.

Lege honen xedea da euskal herriaren dokumentu-ondarea babesteko, aberasteko eta zabaltzeko oinarriak ezartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistemaren antolaketa, funtzionamendua eta artikulazioa eta herritarrek bertako zerbitzu eta funtsetarako izango duten sarbidea arautzea ere.

### 2. artikulua- Aplikazio-eremua.

Lege honetako xedapenen mendeko izango dira euskal herriaren dokumentazio-ondarea osatzen duten edo osa dezaketen dokumentu guztiak eta Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitakoak diren artxibo guztiak.

### 3. artikulua- Kontzeptuak

Lege honi dagokionez, honako definizioak hartuko dira oinarri:

1.- Artxibo-dokumentua: erregistratutako edozein informazio, forma eta ezaugarri fisikoak edozein direla ere, bere funtzioak betetzen ari zela edozein erakunde, entitate edo gizabanakok jasotakoa, sortutakoa edo kontserbatutakoa.

2.- Artxibo-funtsa: dokumentuen multzo organikoa, modu antolatuan kontserbatutakoa bertako informazioa behar bezala zabaltzea bermatzeko.

3.- Artxibo-zerbitzua: Artxiboan barne hartutako dokumentu eta dokumentu-funtsen tratamendu teknikoaz, kontserbazioaz eta zabalpenaz arduratzen den edozein zerbitzu.

### 4. artikulua- Koordinazioa eta lankidetzaz.

1.- Eusko Jaurlaritzak toki-administrazioekin nahiz lurralde historikoetako, estatuko, beste autonomia-erkidego batzuetako eta euskararen hizkuntza-esparruko lurraldeetako artxibo-zerbitzuekin batera egingo du lan, euskal herriaren dokumentu-ondarea babesteko, kontserbatzeko eta zabaltzeko.

2.- Eusko Jaurlaritzak lankidetzaz egokia adostuko du askotariko erlijio-konfesioekin, euskal herriarentzat balio publiko edo historiko berezia duten konfesio horietako artxiboak hobetzeko, kontserbatzeko, aztertzeko eta zabaltzeko.



## 5. artikulua– Teknologia berriak sustatzea.

Lege honen esparruaren mendeko diren administrazio publikoek teknologia berriak erabiltzea sustatu behar dute artxibo-zerbitzuak kudeatzerakoan. Gainera, dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuak euskarri digitalean gordetzea bermatu behar dute.

## BIGARREN TITULUA DOKUMENTU-ONDAREA

### 6. artikulua- Kontzeptua.

1.- Euskal herriaren dokumentu-ondarea hauxe da: historian zehar eskumenak, funtzioak edo jarduerak Euskal Herrian garatu dituen edozein administrazio, entitate edo gizabanakok sortu edo jasotako balio iraunkorreko dokumentazioa, horren titulartasuna eta dokumentazioaren gaur egungo kokalekua edo etorkizunekoa edozein direla ere. Horri begira, balio iraunkorrekotzat joko da aztertzeko eta garbitzeko prozesu baten ondoren euskal herriaren memoria historikoaren baitan halakotzat jotako dokumentazioa.

2.- Aurreko paragrafoaren ezarritakorako, honakoek beren funtzioak betetzerakoan edo jarduerak egiterakoan sortu, bildu eta kontserbatutako funtsak izango dira ondare horren zati:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta erakunde-administrazioak.
- b) Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar-nagusiek.
- c) Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako administrazio orokorrek eta erakunde-administrazioek.
- d) Euskadiko toki-administrazioek eta horien mendeko diren entitate edo erakundeek.
- e) Estatuko administrazioak eta horren mendeko entitate edo erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan jardun izan dutenek edo dihardutenek, betiere aplikagarri zaien estatuko legeriaren kaltetan izan gabe.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Europar Batasuneko organoek, aplikagarri zaien Batasuneko legeriaren kaltetan izan gabe.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako unibertsitateek, ikastetxeek eta ikastegiak.
- h) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten justizia-administraziako organoek.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoko notaritza eta erregistro publikoek.
- j) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten zuzenbide publikoko korporazioek.

3.- Horiez gain, euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitakoak dira berrogeita hamar urte edo gehiagoko antzintasuna duten eta honakoek beren funtzioak betetzerakoan edo jarduerak egiterakoan sortu, bildu eta kontserbatutako balio iraunkorreko funtsak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako eliza-erakundeek eta askotariko erlijio-konfesioetako elkarte eta organoek.



- b) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten erakunde politiko eta sindikalek eta enpresa-erakundeek.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko entitateek, fundazioek eta elkarteek.
- d) Bestelako edozein entitate partikular edo pertsona fisikok.

#### **7. artikulua– Dokumentu-ondareztat jotzea**

1.- Interesdunak entzun ondoren, Eusko Jaurlaritzak euskal dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentutzat jo ahal izango ditu ondorengoak, betiere kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularren aginduaren bidez eta Eusko Jaurlaritzako Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseiluak nahitaezko txostena egin ondoren:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan errotuta ez egon arren, beren jarduera- edo jurisdikzio-esparruan Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoa edo zatiren bat iraganean barne hartu duten edo egun barne hartzen duten erakunde, administrazio eta entitate publikoek beren funtzioak betetzerakoan edo jarduerak egiterakoan sortu, bildu eta kontserbatu dituzten eta artxibo-funtsa osatu izan duten edozein garaitako balio iraunkorreko dokumentuak.

b) Balio iraunkorreko eta berrogeita hamar urte baino gutxiagoko antzinatasuneko dokumentuak, edozein pertsona edo entitate pribatuk bere jarduerak egiterakoan sortu, bildu eta kontserbatu dituenak eta publikoa ez den artxibo-funtsa edo dokumentu-bilduma osatu izan dutenak.

2.- Kultur ondareari buruzko legerian ezarritako betebeharrak betetzeaz gain, dokumentu-ondareztat jotzeak berekin dakar titularrek Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalarekin lankidetzan jarduteko betebeharra, ondare hori kontserbatzeko eta zabaltzeko. Horretarako, laguntza teknikoa eta ekonomikoa emango diete.

#### **8. artikulua– Jabari publikoa**

1.- Euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitakoak diren artxibo-funtsak sortzen dituzten edo dokumentuak biltzen eta dokumentu-bildumak osatzen dituzten erakunde publikoek beren artxibo-zerbitzua izango dute, eta hori zerbitzu publikotzat joko da legez.

2.- Erakunde publiko baten titulartasunekoak diren eta euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitakoak diren dokumentu guztiak jabari publikoko ondasun izango dira, eta ezingo dira besterendu, ezingo zaie traba, enbargo edo kargarik ezarri, eta ezingo dira preskripzioz eskuratu.

3.- Bidezko titulurik gabe, bere izaera dela eta nabarmen beste erakunde publikoren baten titulartasuneko artxibo-funtsaren baitakoa izan behar lukeen dokumenturen bat duen edozein pertsonak edo erakunde publiko nahiz pribatuk erakunde eskudunari entregatu beharko dio dokumentu hori, aipatutako artxibo-funtsean barne hartzeko.

#### **9. artikulua– Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak.**

1.- Euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitakoak diren dokumentuen titular pribatuek libreki besterendu ahal izango dituzte dokumentu guztiak nahiz horietako batzuk, edo Euskal Autonomia Erkidegotik ateratzea ere erabaki dezakete, kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari idatziz jakinarazi ondoren.

2.- Eusko Jaurlaritza, kultura-gaietako eskumena duen sailaren bidez, euskal dokumentu-ondarearen baitako titulartasun pribatuko funtsen eta dokumentuen gaineko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideez balia daiteke, jabetza edo edozein eskubide errealen kostu bidezko transmisioa egiten bada.

3.- Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideez Euskal Kultur Ondareari buruzko legean ezarritako moduan baliatuko da.

#### **10. artikulua– Kontserbatzeko betebeharra.**

1.- Eusko Jaurlaritzaren betebeharrak izango dira honakoak:

a) Euskal herriaren dokumentu-ondarea kontserbatzea eta babestea, beste administrazio publikoei eta dokumentu-ondarearen zati baten jabe diren edo hori zaintzen duten pertsona pribatuei eska dakiekeen lankidetzaren kaltetan izan gabe.

b) Euskal herriaren dokumentu-ondarea osatzen duten funtsen titular diren pertsonak eta erabiltzaileak legeak ezarritako betebeharrak betetzeaz arduratzea.

2.- Euskal herriaren dokumentu-ondarea osatzen duten artxibo-funtsen eta dokumentuen titular edo edukizaitelen betebeharrak izango dira honakoak:

a) Horiek kontserbatzea eta zaintzea, aplikagarri den legerian aurreikusi bezala kontsultatzea ahalbidetzea, eta, hala badagokio, administrazio publiko eskudunaren ikuskaritza-lanak erraztea, lege honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko.

b) Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalarekin lankidetzan aritzea ondarea kontserbatzeko eta zabaltzeko. Horretarako laguntza teknikoa eta ekonomikoa izango dute.

3.- Betebeharrak horiek ez betetzeak funtsak edo dokumentuak hondatzeko, galtzeko edo suntsitzeko arriskuan jartzen baditu, hori gizarte-intereseko arrazoi izango da desjabetzeko, baita legez dagozkion zigorrak ezartzeko ere.

4.- Eusko Jaurlaritzak behar diren bitartekoekin lagunduko du aurreko xedapenak betetzen, eta beharrezko laguntza ekonomikoak eta teknikoak eman ahal izango ditu. Laguntza horiek ondarea egoki kontserbatzeko interesa egiaztatzen duten titular pribatuek eskuratu ahal izango dituzte. Interes hori instalazioak hobetzearen nahiz dagokion inbentarioa idaztearen bidez adierazitakoa izango da.

#### **11. artikulua- Euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitako dokumentuak gordailatzea.**

1. Euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitako artxibo-funtsen kontserbazioa arriskuan jartzen duten urritasunak daudenean, kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak dokumentu horiek Euskadiko Artxibo Historiko Nazionallean edo baldintza egokiak betetzen dituen besteren batean gordailatzea erabaki ahal izango du, titularrak edo edukizaitelak hala eskatuta nahiz ofizioz, gordailatze horren sorburuan diren kausak konpontzen diren arte.

2. Euskadiko Artxiboen Sistemaren barne hartutako artxibo publikoek titulartasun pribatuko dokumentu-ondarea babesten lagundu behar dute. Horretarako, euskal herriaren dokumentu-ondarearen baitakoak diren dokumentuen titular pribatuek dokumentuak sistemako artxibo publiko batean gordailatzea eskatu ahal izango dute. Gordailatzeko hitzarmenean aurkakorik adierazten ez bada, artxiboak titulartasun publikoko dokumentu



gisa erabili ahal izango du, non eta jabeak ez duen berariaz mugatzen dokumentuaren erabilera eta horretarako sarbidea.

#### **12. artikulua- Dokumentu Ondarearen Zentsua.**

1. Dokumentu Ondarearen Zentsua sortuko da, kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita. Euskal herriaren dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentu eta funtsen zerrenda eguneratuta izatea izango du helburu.

2. Erregelamendu bidez finkatuko da zentro horren antolaketa.

#### **13. artikulua- Dokumentu Ondarearen Inbentarioa.**

1.- Euskal Dokumentu Ondarearen Inbentarioa Euskadiko Ondareko Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorren zati da, eta bere berariazko araudiaren arabera funtzionamendua izango du.

2.- Euskal Dokumentu Ondarearen Inbentarioan barne hartutako dokumentuek eta artxibo-funtsek Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen III. tituluan eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan inbentarioan jasotako ondasun higigarrietarako aurreikusitako babes-erregimena izango dute.

### **III. TITULUA EUSKADIKO ARTXIBOEN SISTEMA**

#### **14. artikulua- Definizioa, atxikitzea eta funtzioak.**

1. Euskadiko Artxiboen Sistema artxiboen kudeaketari lotutako Euskal Autonomia Erkidegoko organo, zentro eta zerbitzuen multzo antolatua da, bertako elementuen arteko koordinazioan eta lankidetzan oinarrituta.

2. Euskadiko Artxiboen Sistema kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitakoa da, eta horren zeregin izango da bertako zerbitzuen plangintza koordinatzea.

3. - Honakoak dira Euskadiko Artxiboen Sistemaren funtzio nagusiak:

a) Bertan barne hartutako artxibo-zerbitzuak homologatzea, deskribatzeko irizpideei dagokienez nahiz dokumentuak tratatzeko arauari dagokienez.

b) Plangintza, sortze eta antolaketaren inguruko aholkuak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo-zerbitzuei, baita beste administrazio edo partikularrekin lankidetzan ezartzen diren artxibo-zerbitzuei ere.

c) Sistema osatzen duten artxibo-zerbitzuen kudeaketako irizpide teknikoak koordinatzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako gainerako artxibo-funts eta dokumentuen ingurukoak ere.

d) Dokumentu-ondarea ikertzeko eta zabaltzeko lanak sustatzea, eta erakusketak eta argitalpenak egiten laguntzea.

e) Estatuko titulartasuneko artxiboak kudeatzea, estatuko administrazioarekin adostutako hitzarmenen esparruan.

f) Artxibistikako teknikarien eta adituen prestakuntza sustatzea.



g) Sistema osatzen duten artxibo-zerbitzuak deskribatzeko eta zabaltzeko programak koordinatzea.

h) Hala badagokio, beste administrazio publiko batzuekin eta erakunde publiko edo pribatuekin hitzarmenak egitea proposatzea, bere berariazko funtzioak betetzeko beharrezko badira.

### **15. artikulua- Osaketa**

Honakoak hartuko ditu bere baitan Euskadiko Artxiboen Sistemak:

a) Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala

b) Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa (IRARGI)

a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta erakunde-administrazioaren artxibo-sistema.

d) Euskadiko toki-administrazioen artxibo-zerbitzuak.

e) Lurralde historikoetako artxibo-zerbitzuak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatutako estatuko titulartasun publikoko artxibo-zerbitzuak, dagozkien hitzarmenen bidez hartuko direnak barne bertan.

f) Titulartasun publikokoak ez diren dokumentu-bildumen edo artxibo-funtsen titularrak, hitzarmen bidez bertan barne hartzeko eskatzen badute, kasuan kasu adostutako moduan.

g) Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua.

h) Euskadiko Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordea.

### **16. artikulua- Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitakoak izateko eskakizunak eta betebeharrak.**

1.- Euskadiko Artxiboen Sistemaren barne hartutako artxibo-zerbitzuek eta dokumentu-bildumen edo -funtsen titularrek Eusko Jaurlaritzak ezarritako erregelamenduak beteko dituzte, eta honako betebeharrak izango dituzte:

a) Artxibo-zerbitzurako egokiak diren instalazioak, segurtasuneko ekipamenduak eta larrialdietako planak izatea, dokumentazioaren osotasuna bermatzeko, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraiki.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren nahiz toki-administrazioen titulartasuneko artxibo-zentroak barne hartzen dituzten eraikinak nahiz horiek hartuko dituzten eraikin eta lurak erabilgarritasun publikokotzat jo ahal izango dira, desjabetzeari begira, Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseiluak aldeko txostena egin ondoren. Gisa berekotzat joko dira artxiboen alboko eraikin eta lurak ere, segurtasun-arrazoiak hala eskatzen dutenean edo higiezinak eta bertan barne hartutako ondasunak egoki kontserbatzeko beharrezkoa denean.

b) Nahikoa langile kualifikatu izatea artxibo-zerbitzua bere osotasunean kudeatzeko eta, hala badagokio, artxibo-sistema propioa sustatzeko.

c) Artxibo-zerbitzu elebiduna eta herritarren sarbidea bermatzea.



- d) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko dokumentazioa balioesteko eta hautatzeko araudia aplikatzea.
- e) Artxibo-funtsetarako sarbidea lege honetan eta legea garatuko duten xedapenetan ezarritakoaren arabera bermatzea.
- f) Euskadiko Artxiboen Sistema garatzeko eta kudeatzeko lanetan laguntzea.
- g) Kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari beharrezko datuak ematea Dokumentu Ondarearen Zentsua eguneratuta izateko.

2.- Euskadiko Artxiboen Sistemari barne hartutako artxibo-zerbitzuek eta dokumentu-bildumen edo -funtzen titularrek eskatutako informazioa eskuratu beharko diote kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, indarrean dagoen araudia betetzen ote duten egiaztatzeko, eta kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko teknikarien sarbidea eta jarduna ahalbidetuko dituzte.

#### **17. artikulua- Sistemako artxibo-zerbitzuen funtzioak**

Artxibo-zerbitzu guztiek izango dituzte honako funtzioak:

- a) Artxibo-sistema egoki prestatzea eta kudeatzea.
- b) Dokumentuen antolaketa eta transferentzien sistema kontrolatzea.
- c) Dokumentazioa erregelamendu bidez ezarriko diren irizpideen eta prozeduren arabera garbitzea.
- d) Bertan barne hartutako dokumentazioa beharrezko diren bitartekoen bidez zabaltzea.

#### **18. artikulua- Sistemako artxibo-zerbitzuetako langileak**

1. Euskadiko Artxiboen Sistemari barne hartutako artxibo-sistemek beren funtzioak erregelamendu bidez adierazi bezala betetzen direla bermatzeko behar adina teknikari espezializatu izan behar dituzte.
2. Oro har, honako betebeharrak izango dituzten sistemari barne hartutako artxibo-zerbitzuetako langileak:
  - a) Dokumentu-ondarea kontserbatzea eta bertako funtsak irizpide teknikoari jarraiki antolatzea.
  - b) Herritarrek informazio eta dokumentuetarako sarbidea dutela bermatzea.
  - c) Erabiltzaileei arreta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan ematen zaiela bermatzea.
  - d) Dokumentazio sortzen duten erakundeei mailegatzeko eta dokumentuetako datuak erabiltzeko lana erraztea.
  - e) Dokumentuetarako sarbidearen mugei dagokienez indarrean dagoen legeria betetzeaz arduratzea.
3. Artxiboetan funtzioaren bat duten langile guztiek eta tratamenduarekin, kontserbazioarekin edo erreprografiarekin zerikusia duten arazoak direla eta artxiboetako dokumentuekin kontakturen bat duten guztiek ziurtatu beharko dute ezagutzen dituzten dokumentuen



edukiaren isilpekotasuna, eta ohorearen, intimitate pertsonal eta familiarraren nahiz irudi propioaren inguruan indarrean dagoen legeria betetzeaz arduratu beharko dute, baita datu pertsonalen, merkataritzako sekretuen, sekretu ofizialen eta material erreserbatuen gainekoa betetzeaz ere.

#### **19. artikulua- Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitakoak izatearen ondorioak.**

1.- Euskadiko Artxiboen Sistemaren barne hartzeak honakoak erraztuko dizkie bertako kideei, betiere erregelamendu bidez ezarritako moduan: politika komunak finkatzea, informazioa trukatzea, dokumentu-mailegua koordinatzea, edukiak sistema digitaletara edo bestelako euskarrietara aldatzeko prozesua planifikatzea, artxibistikaren esparruko ikerketa, artxibo-sistemetan informaziorako sarbidea eta komunikazioa garatzea, eta kontserbatzeko, deskribatzeko eta zabaltzeko programak finantzatzeko lehentasuna izatea.

2.- Nolanahi ere, onura hauek ekarriko ditu berekin Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitan izateak:

- a) Doako aholkularitza teknikoa eta zientifikoa.
- b) Lankidetzarako, diru-laguntzetarako nahiz berariaz sustatutako gainerakoetarako sarbidea.
- c) Euskadiko Artxiboen Sistemak ezarritako komunikazio-sarean sartzea.
- d) Etengabeko prestakuntzako programetan parte hartzea.
- e) Artxibo-funtsak, bildumak edo dokumentuak gordailatzeko eta zaintzeko erraztasunak.
- f) Kontserbatzeko, deskribatzeko eta zabaltzeko programak finantzatzeko lehentasuna.

#### **20. artikulua- Euskadiko Artxiboen Mapa.**

1.- Euskadiko Artxiboen Mapa da lege honek Euskadiko Artxiboen Sistemaren inguruan egozten dizkion funtzioak betetzeko Eusko Jaurlaritzak izango duen plangintza eta kudeaketarako tresna. Lege honek ezarritako helburuak lurralde osoan lortzeko lehentasunak ezartzea du xede.

2.- Kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak onartuko du mapa, Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseiluari kontsulta egin ondoren, eta mapa eguneratzeaz ere arduratuko da.

### **IV. TITULUA EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKO NAZIONALA**

#### **21. artikulua- Definizioa.**

1. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala izango da Euskadiko artxibistika-erakunde gorena, eta hori dela eta, artxibo nagusi horrena izango da "Euskadiren memoria historikoa" babesteko, kontserbatzeko eta horretarako sarbidea ahalbidetzeko erantzukizuna. "Euskadiren memoria historiko" horretako osagai izango dira, alde batetik, euskal herriaren dokumentu-ondarea osatzen duten artxibo-funtsen eta dokumentuen multzoa, lege honetan araututakoari jarraiki, eta, bestetik, honekin zerikusia duten ondorioetarako garrantzitsutzat jotzen diren gainerako artxibo-funtsak eta dokumentuak, esparru honetakoak ez badira ere. Hori dela eta, esparru honetan bat egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz kanpoko gainerako erakunde publiko eta pribatuekin koordinatuko eta osatuko da artxiboa.



2. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala arduratuko da, helburu bereko beste erakunde batzuekin batera, euskal herriko dokumentu-ondarea kontserbatzeaz eta zabaltzeaz.
3. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala euskal herriaren dokumentu-ondarea gordailatzeko, kontsultatzeko eta ikertzeko zentroa izango da.
4. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala izango da euskal ondare digitalaren egoitza.

#### **22. artikulua- Izaera, egitura eta funtzionamendua.**

Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitako erakunde autonomiaduna da, eta legez ezarriko dira bere egitura eta funtzionamendua.

#### **23. artikulua- Funtzioak.**

Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalak honako funtzioak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan:

- a) Euskal herriaren dokumentu-ondarea biltzea, kontserbatzea eta zabaltzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta erakunde-administrazioaren dokumentuak eta artxibo-funtsak biltzea eta kontserbatzea.
- c) Ondare hori eskuratzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko lanak beste erakunde batzuekin koordinatzea.
- d) Dokumentu-ondarearen digitalizazio masiboa sustatzea, kopia digitalak erabiltzea lehenestea eta Dokumentu Ondarearen Erregistro Digitala kudeatzea.
- e) Ondare digitalaren inguruko lankidetzaprogramak sustatzea.
- f) Dohaintzan emandako edo gordailuan utzitako dokumentu-funtsak jasotzea, baita legez dagokion artxiboak behar bezala babestu ezin dituen funtsak jasotzea ere.
- g) Artxiboen eta dokumentu-ondarearen esparruko ikerketan eta prestakuntzan buru izatea.
- h) Edozein euskarritako euskal herriaren dokumentu-ondarea kontserbatzeaz arduratzea, beste erakunde batzuekin lankidetzan.
- i) Euskadiko dokumentu-ondarea babesteko laguntza-zerbitzuak ematea, eta bereziki zaharberritzeko, kopiatzeko eta kudeatzeko zerbitzuak.

#### **24. artikulua- Beste zentro batzuekin koordinatzea.**

1. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalak lankidetzan eta koordinazioan oinarritutako harremanak izango ditu dokumentu-intereseko funtsak dituzten beste zentroekin.
2. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalak, bere funtzioak betetzerakoan, Euskadiko Artxiboen Sistemako gainerako elementuekin batera egingo du lan.

## V. TITULUA DOKUMENTAZIORAKO SARBIDEA

### 25. artikulua- Sarbide publikorako eskubideak.

1.- Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitakoak diren erakunde publikoek bermatu behar dute herritarrek euskal herriaren dokumentu-ondarea osatzen duten eta beren zaintzapean diren dokumentuetarako sarbide aske, unibertsal eta diskriminaziorik gabekorako eskubidea, horretarako erregelamendu bidez ezarritako moduan eta ezarritako baldintzak betez.

Gainera, dokumentu horiek kontsultatzea eta erabiltzea sustatuko dute, deskribatzeko eta informazioa emateko tresna egokiak prestatzearen bidez, eta dokumentu horiek zabaltzea ere bultzatuko dute.

2.- Euskal herriaren dokumentu-ondarean barne hartutako titulartasun pribatuko artxiboen eta dokumentuen jabeek eta edukitzaileek ikertzaileek horiek aztertzea ahalbidetu behar dute, horiek arrazoitutako eskabidea aurkeztu ondoren kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

Betebehar hori bete ordez, titularrak edo edukitzaileak, bere ekimenez, aldi baterako gordaila ditzake dokumentuak Euskadiko Artxiboen Sistemako edozein zentroan, bertan aztertu ahal izateko.

3.- Euskal herriaren dokumentu-ondarean barne hartutako titulartasun pribatuko artxiboen eta dokumentuen jabeek eta edukitzaileek Eusko Jaurlaritzako langile kreditatuek dokumentu horietarako sarbidea izatea ahalbidetu behar dute, horiek ikuskatu ahal izateko, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

### 26. artikulua- Sarbiderako eskubideen mugak.

1. Aurreko artikuluan adierazitako sarbiderako eskubideak dokumentuak kontserbatzearekin zerikusia duten arrazoiak direla eta mugatu ahal izango dira, baita horrek intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea edo irudi propioarena urratzen dituelako, merkataritzako isilpekotasunari zor zaiolako edo aplikagarri den legeriak mugatzen duelako ere.

2.- Libreki kontsultatu ahal izango dira datu pertsonalik ez duten dokumentu guztiak.

3.- Legeak sarbiderako bestelako epeak ezartzen ez dituen bitartean, libreki kontsultatu ahal izango dira datu pertsonalak dituzten dokumentu guztiak, aipatzen den pertsona hil zenetik 25 urte igaro badira edo 50 urte igaro badira dokumentuen datatik, aipatzen den pertsonaren heriotza-data ezagutzen ez bada.

Aurreko paragrafoan adierazitako epeak igaro ez badira eta dokumentuetan barne hartutako informazioak pertsonen segurtasunean, ohorean, intimitatean, irudi propioan edo bestelako zainahi datutan eragiten badu, dokumentu horiek titularrek edo horien oinordekoek bakarrik kontsultatu ahal izango dituzte.

Dena den, dokumentu horiek beste pertsona batzuek kontsultatu ahal izango dituzte idatziz eta berariaz ematen badute horretarako baimena beren intimitatean eraginen bat izan dezaketen pertsonak. Legeriak adierazitako kasuetan eta baldintzetan ere kontsultatu ahal izango dira dokumentu horiek.

4.- Dokumentazio horretarako nahiz horiek gordailatzen dituzten zentroetarako sarbidea duten pertsonak horiek behar bezala erabili beharko dituzte eta eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira, lege honetan ezarritakoaren arabera. Artxibo-zerbitzuen arduraduna arduratuko da une oro dokumentazioa behar bezala erabiltzeaz.



5.- Dokumentuetarako sarbideak berekin dakar kopiatzeko eskubidea, baina aurrez adierazitakoaz gain, jabetza intelektualaren inguruan indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak bete beharko dira, baita erregelamendu bidez ezarritakoak ere.

#### **27. artikulua- Dokumentuak kontsulta publikotik kanpo uztea**

1.- Artxiboaren gaineko ardura duen eskudunak erabakiko du, modu arrazoituan, zein dokumentazioa utziko den kontsulta publikotik kanpo, indarrean dagoen legeriaren eta dokumentazioan barne hartutako informazio-motaren arabera.

2.- Kontsulta publikotik kanpo utzitako dokumentaziorako sarbidea izateko, beharrezkoa izango da administrazio eskudunaren baimena.

3. Kontsulta publikotik kanpo uztea datu pertsonalak barne hartzeari zor bazaio, eta administrazioak baimena ematen badu, eskatutako dokumentazioaren zati bat kontsultatu ahal izango da, betiere kontsultatik kanpo utzi badaitezke bertan agertzen denaren eragina izan dezaketen pertsonak identifikatzea ahalbidetzen duten datuak.

### **VI. TITULUA DOKUMENTU ETA ARTXIBISTIKA GAIETAKO AHOLKU ORGANOKAK**

#### **28. artikulua- Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua.**

1. Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua da Eusko Jaurlaritzaren kontsulta-organo teknikoa, Euskadiko dokumentu-ondarearen kontserbazio, tratamendu eta zabalpenarekin zerikusia duen orotarako.

2. Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseiluak jardungo du sistemaren informazio, kontsulta eta aholkularitzako organo gisa, eta honako funtzioak izango ditu:

a) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen esparruan indarrean dagoen legeriari jarriki nahitaezko diren txostenak egitea.

b) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen esparruko proposamen teknikoak eta jarduteko proposamenak lantzea.

c) Euskadiko Artxiboen Sistemari aholku ematea.

d) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen esparruko xedapen orokorren proiektuen gaineko txostena egitea.

e) Dokumentu-ondarearen eta artxiboen esparruko txostenak eta irizpenak egitea, herritarrek edo gai horretako eskumena duten administrazioek eskatuta, lege honek xedatutakoarekin bat.

f) Artxibo bat Euskadiko Artxiboen Sistemari barne hartu aurreko txostena egitea.

g) Dokumentu bat euskal herriaren dokumentu-ondarean barne hartu aurreko txostena egitea.

h) Euskadiko Artxiboen Mapa onartu eta aidatu aurreko txostena egitea.

i) Dokumentuak eta artxibo-funtsak euskal herriaren Dokumentu Ondarearen Zentsuan barne hartu aurreko txostena egitea.



3. Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitakoa da.

4. Erregelamendu bidez arautuko dira bere osaketa eta funtzionamendua, eta dokumentu-ondarearen eta artxiboen esparruan egiaztatutako eskarmentua duten pertsona ospetsuek bertan parte hartzea bermatuko da.

### **29. artikulua- Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordea.**

1. Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordea Eusko Jaurlaritzaren kontsulta-organo teknikoa da, dokumentazioa ebaluatzeko eta hautatzeko irizpide orokorrak prestatzea eta homogeneizatzea, horiek onartzeko proposatzea eta behar bezala aplikatzen direla kontrolatzea dituen helburu.

2. Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordeak Euskadiko Artxiboen Sistemari barne hartutako artxiboen esparruan jardungo du, eta ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Dokumentuak balioesteko eta hautatzeko oinarritzko irizpideak eta irizpide orokorrak zehaztea.

b) Dokumentuak balioesteko eta hautatzeko koadroak onartzea eta horien inguruko txostenak egitea.

c) Artxibo-zerbitzuei aholkuak ematea, kontserbazioaren eta dokumentuak balioesteko eta hautatzeko irizpideak aplikatzearen inguruan.

3. Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordea hainbat diziplinatako eta kide anitzeko organoa da, kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikitakoa.

4. Erregelamendu bidez arautuko dira bere osaketa eta funtzionamendua, eta dokumentu-ondarearen eta artxiboen esparruan egiaztatutako eskarmentua duten pertsona ospetsuek bertan parte hartzea bermatuko da.

## **VII. TITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA**

### **30. artikulua- Zehatzeko araubidea.**

1. Delitu izan daitezkeenak alde batera utzita, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean oro har aurreikusitako ez gain, administrazioko arau-hauste izango dira lege honetan ezarritako betebeharrak eta eginbeharrak urratzen dituzten ekintzak edo ez-egiteak.

#### **1.1. Oso arau-hauste larriak:**

a) Legez isilpeko ofizialtzat jotakoak eta halaxe sailkatutakoak argitaratzea edo behar ez bezala erabiltzea.

b) Dokumentazioa suntsitzea edo zabarkeriaz jokatzeko euskal herriaren dokumentu-ondareko ondasunak kontserbatzerakoan, horiek suntsitzeko edo hondatzeko arriskuan jarritz.

c) Dagokien kargua dela eta ezagutzen duten eta zabaldu behar ez duten informazioa isilpean ez izatea.



d) Lege honen xedapenek mugatutako dokumentuetako informaziorako sarbidea ahalbidetzea.

e) Bi arau-hauste larri egitea.

f) Artxiboen lokaletan, materialetan edo dokumentuetan oso kalte larriak eragitea.

1.2. Arau-hauste larriak:

a) Artxiboen lokaletan, materialetan edo dokumentuetan kalte larriak eragitea.

b) Titulartasun publikoko dokumentuak atxikitzea horiek zaintzen dituzten pertsonak, beren funtzioak betetzeari uzten diotenean.

c) Dokumentazio sortzen duten erakundeei dokumentuak mailegatzeko eta dokumentuetako datuak erabiltzeko lana oztopatzea.

d) Pertsona edo erakunde pribatuek titulartasun publikoko dokumentuak behar ez bezala atxikitzea.

e) Behin eta berriz uko egitea euskal herriaren dokumentu-ondarearen artxibo-zentroen zentsua edo inbentario orokorra prestatzen laguntzeari.

f) Arrazoirik gabe ezezkoa ematea dokumentaziora lege honetan aurreikusi bezala sartzeari.

g) Bi arau-hauste arin egitea.

2. Gainerako arau-hausteak arintzat joko dira, lege honen arabera bestelakotzat jotzen ez diren bitartean.

### **31. artikulua– Zehapenak.**

1. Lege hau urratu dutela eta, ekonomikoki ebalua daitezkeen kalteak eragin dituztenei isuna jarriko zaie eta isun hori egin duten kaltearen balioaren laukoitza izango da, artikulua honetako bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatutakoa aplikatuz izango luketen isunaren zenbatekoa handiagoa litzatekeenean izan ezik.

2. Arintzat jotako arau-hausteak ohartarazpen bidez edo hiru mila euro arteko isunarekin zehatuko dira.

3. Larrizat jotako arau-hausteak hiru mila eta bat euro eta ehun eta berrogeita hamar mila euro arteko isunekin zehatuko dira. Zehapen osagarri gisa ezarri ahal izango da bi urte arte etetea Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitakoa izateak berekin dakartzan onurak.

4. Oso larrizat jotako arau-hausteak ehun eta berrogeita hamar mila eta bat euro eta milioi bat euro arteko isunekin zehatuko dira. Zehapen osagarri gisa ezarri ahal izango da lau urte arte etetea Euskadiko Artxiboen Sistemaren baitakoa izateak berekin dakartzan onurak.

5. Zehapenaren zenbatekoa ez da inoiz izango arau-haustea bere ekintzaren ondorioz izandako onura baino txikiagoa, eta dagokion isunaren zenbatekoa onura horren mugaraino igo ahal izango da, onura hori ekonomikoki ebalua daitekeena bada.

6. Multzo bereko zehapenak mailakatzeko garaian honako alderdiok hartuko dira kontuan: gertakarien larritasuna, egindako kaltea, lortu nahi zen onura ekonomikoa, ondasunaren





garrantzia edo balioa, kaltearen eragina, egindako kaltea unean bertan konpontzea, berriro egitea, maltzurkeria-maila, kapitala eta arau-hauslearen bestelako inguruabarrak.

7. Hainbat subjekturi arau-hauste bera dela eta jarritako isunek ez dute zerikusirik izango elkarrekin.

### **32. artikulua- Preskripzioa.**

1. Lege honetatik eratorritako administrazioko arau-haustek egin eta bost urteko epean preskribatuko dira.

2. Oso arau-hauste larrietarako ezarritako zehapenak bost urteren buruan preskribatuko dira eta larriak hiru urteren buruan, zehapen-ebazpena irmoa denetik kontatzen hasita. Arau-hauste arinetarako ezarritakoak, aldiz, urtebeteren buruan.

### **33. artikulua- Kalteak konpontzea.**

Lege hau urratu eta kalteak eragin dituztenek kalte horiek konpontzeko betebeharra izango dute, eta ahal den neurrian, leheneratu egin behar dituzte. Betebehar hori betetzen ez badute, kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak konpontzeko eta leheneratzeko beharrezko jarduerak egingo ditu, arau-hauslearen kontura.

## **LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA.**

Toki-erakundeetako artxibo-zerbitzuek gehienez ere bi urteko epea izango dute lege honetako eskakizun guztietara erabat egokitzeko, legea indarrean sartzan denetik hasita.

## **BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.**

Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalak bere funtzionamenduari ekiten ez dion bitartean, bere funtzioak Eusko Jaurlaritzaren Dokumentu Ondarearen Zentroak beteko ditu.

## **HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.**

Kultura-gaietako eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularraren aginduaren bidez argitaratuko da Dokumentu Ondarearen Zentsua sei hilabeteko epean, lege hau indarrean sartzan denetik hasita.

## **LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta erakunde-administrazioak Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalak bere funtzionamenduari ekin eta urtebeteko epea izango du bertara lekualdatzeko dokumentu-ondarea osatzen duten bere dokumentu eta artxibo-funtsak.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Lege honek berariaz indargabetzen ditu uztailaren 3ko 7/1990 Legearen, Euskal Kultur Ondareari buruzkoaren, IV. tituluko I. kapitulua eta II. tituluko IV. kapitulua, baita lege honek xedatutakoaren aurkakoa dioten maila bereko edo behegoko xedapenak ere.

## **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA**

Dekretu bidez, lege honetan aurreikusitako zehapenen zenbatekoak eguneratu ahal izango ditu Gobernu Kontseiluak, Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboan Aholkularitza Kontseiluaren txostenaren ondoren.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.**

Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hau garatzeko beharrezko diren erregelamenduzko xedapenak egiteko.

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.**

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeit egunera sartuko da indarrean.